



Hamarka pertsona kontzentratu dira, Bilboko plaza biribilean, turkiar gobernuak; herri kurdua eta Turkiako ezkeraren aurka ezartzen duen errepresioa salatzen. Denbora asko darama Turkiar gobernuak politika errepresiboak inposatzen: komunikabideen itxiera, atxiloketa politikoak, alderdi eta mugimendu politikoaren ilegalizazioa, gutxiengoak bazterketa... Politika hau areagotu da, uztailean egondako estatu kolpearen aitzakiarekin. Errepresioa jasaten duen alderdi politikoetariko bat: HDP, alderdi kurdua da, barruan mota askotako jendea duena.

alt=""

```
swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/SO85IkGwHhw','avreloaded0','400','320','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'}',{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});
```

Eragile internazionalak Europak eta mendebaldeak duen jarrera salatu dute baita ere, esate baterako errefuxiatuen inguruan Europar Batasunak eta Turkiak sinatu duten hitzarmena gaitzetsi dute.

Ala ere argi utzi dute Kurdistan, herri baketsua dela eta bakea zein justiziaren alde borrokatzen jarraituko dutela. Euskal Herrian bizi diren kurduak ahotsa altxatu dute eta herri kurduaren alde egiteko deia luzatu dute: Europar Batasuna eta Turkiaren arteko akordioa, sarraskiak, atxiloketak... salatuz.